# LAZKAO

| # 23 | 2022 EKAINA |

LAZKAOKO UDALA



## Agauntza ibaiaren gaineko pasabide berri batek San Benito Ikastola eta Elosegi kalea lotuko ditu

**Las obras arrancarán en junio y tendrán una duración aproximada de 5 meses**



ARRANCA LA OBRA DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL JOXEMIEL BARANDIARAN

[ 2-3 ]



LAZKAOKO UDALAK MERKATARITZA, ZERBITZUAK ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO BI DIRU-LAGUNTZA JARRI DITU ABIAN

[ 4-5 ]



# Hasi dira Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegia eraberritzeko proiektuaren hurrengo faseko obrak

Kiroldegia handitzeko eta birmoldatzeko bosgarren fase honetan, barruko igerileku berri bat eraiki, egungoa berritu eta aldagela berriak egitea aurreikusten da.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia berritzeko prozesuaren fase berri bati ekin dio Udalak ekainean. Aurreko faseetan, kanpoko igerilekuak, gimnasioak eta ikastaroetarako eta irisgarritasunerako espazioak egokitzeko obrak burutu ziren.

Kiroldegia handitzeko eta birmoldatzeko bosgarren fase honetan, barruko igerileku berri bat, egungoa berritu eta aldagela berriak eraikitzea aurreikusten da. Era berean, instalakuntzak eta makineria berrituko dira, osasun baldintzak eta eragin-kortasun energetikoa hobetuz eta Lazkao jasangarriago baterantz pausoak emanez. Obrek hiru eremuri eragingo diete: igerileku estalia, tenis-pista eta lehen solairua. Etorkizunari begira, hurrengo fasean, bi solairu berri eraiki ahal izango dira igerileku berriaren gainean.

Iparragirre Eraikuntza Lanak SL enpresak egingo du obra, 4.035.274 euro + BEZ-eko aurrekontuarekin. Aurreikuspenen arabera, lanek 20 hilabete inguruko iraupena izango dute.

*“Iparragirre Eraikuntza Lanak SL enpresak egingo du obra, 4.035.274 euro + BEZ-eko aurrekontuarekin. Aurreikuspenen arabera, lanek 20 hilabete inguruko iraupena izango dute.*

Kiroldegia handitzeko, eraikin berri bat eraikiko da gaur egungo tenis-pistan. Eraikin berri horrek erdisoto-solairua izango du instalazio desberdinetarako, eta lehenengo solairuan, igerileku klimatizatu berri bat, 25 x 12 metrokoa, sei kalekoa eta harmailekin.

Egungo igerilekua ere eraberrituko da, haren tamaina txikituz eta sauna zerbitzua bertan kokatuz. Lehenengo solairuan aldagela desberdinak sortuko dira igerilekuko erabiltzaileentzat.

**Igerileku berria**
Gaur egungo tenis-pistak hartzen duen eremuan, instalazioetarako sotoa eta harmailadun sei kalez estalitako igerileku bat.

**Egungo igerilekua**
Gaur egungo igerileku estalia txikiagoa izango da eta sauna-gunea eta igerilekuarekin lotutako beste zerbitzu batzuk eskaintzeko espazioa izango ditu.

**Aldagelak**
Lehenengo solairuko aldagelak, eta gaur egun aldagelak dauden gunea beste zerbitzu batzuetarako baliatuko da.

## Aurreko lau faseak

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegia 1983an eraiki zen, duela ia 40 urte. Aurreko faseetan, estali gabeko igerilekuak eraiki ziren, eta bigarren solairua egungo igerilekuaren gainean. Bertan, gimnasioa, erabilera anitzeko aretoak eta aldagelak jarri ziren.



En esta quinta fase de ampliación y remodelación del polideportivo se contempla construir una nueva piscina interior, la renovación de la existente y nuevos vestuarios.



*La obra será ejecutada por la empresa Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. por 4.035.274 euros + IVA. La previsión es que los trabajos tengan una duración aproximada de 20 meses.*

# Arrancan las obras de la próxima fase del proyecto de reforma del Polideportivo Municipal Joxemiel Barandiaran

El Consistorio ha iniciado en junio una nueva fase en el proceso de renovación del polideportivo Joxemiel Barandiaran. En fases anteriores se llevaron a cabo obras de acondicionamiento de las piscinas exteriores, gimnasios y espacios multiuso, asi como, mejoras de accesibilidad.

En esta quinta fase de ampliación y remodelación se contempla una nueva piscina interior, la renovación de la existente y nuevos vestuarios. Asimismo, se renovará la instalación y maquinaria de los espacios afectados, mejorando las condiciones sanitarias y la eficiencia energética, dando pasos hacia un Lazkao más sostenible. Las obras afectarán a tres espacios: la actual piscina cubierta, la pista de tenis y la primera planta. De cara al futuro, en una siguiente fase, se podrán construir dos nuevas plantas sobre la nueva piscina.

La obra será ejecutada por la empresa Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. por 4.035.274 euros + IVA. La previsión es que los trabajos tengan una duración aproximada de 20 meses.

La ampliación del polideportivo se realizará mediante la construcción de un nuevo edificio en la actual pista de tenis. Este nuevo edificio contará con planta semisótano para diferentes instalaciones y en la primera planta, con una nueva piscina climatizada de 25 x 12 metros de seis calles y con gradas.

También se reformará la actual piscina, reduciendo su tamaño y ubicando en la misma el servicio de sauna. En la planta primera se crearán diferentes vestuarios para las y los usuarios de la piscina.

**Nueva piscina**

En la zona ocupada por la actual pista de tenis, sótano para instalaciones y una piscina cubierta de seis calles con gradas.

**Piscina actual**

La actual piscina cubierta será de menor tamaño y albergará una zona de sauna y espacio para ofrecer otros servicios relacionados con la piscina.

**Vestuarios**

Vestuarios en la primera planta, y la zona en la que actualmente se ubican las mismas se aprovechará para otros servicios.

## Las cuatro fases anteriores

El Polideportivo Municipal Joxemiel Barandiaran se construyó en 1983, hace casi 40 años. En fases previas, se construyeron piscinas descubiertas y se ejecutó una segunda planta sobre la actual piscina, donde se instalaron el gimnasio, salas polivalentes y vestuarios.

# Lazkaoko Udalak merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko bi diru-laguntza lerro berri jarri ditu abian



Ohiko diru-laguntzez gain, 'Ticketbai' fakturazio sistema berrian aplikazioa euskaraz jartzeagatik laguntza emango du, eta baita 'Goierriko Azoka' plataforman parte hartzeagatik ere.

Lazkaoko Udalak tokiko merkataritzaren, zerbitzuen eta ostalaritzaren sustapenerako 2022ko diru-laguntza katalogoa eman du ezagutzera. Bi berrikuntza jaso dira aurreko urteekin alderatuta: batetik, euskararen sustapenaren helburuarekin, 'Ticketbai' fakturazio sistema berrian aplikazioa euskaraz jartzeagatik, eta bestetik, digitalizazioaren sustapenaren helburuarekin, 'Goierriko Azoka' plataforman parte hartzeko diru-laguntzak.

Diru-laguntza hauen helburua Lazkaoko merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatu eta laguntzea dela nabarmendu dute udal ordezkariek: "hainbat alorretan dihardugu lanean, oinarri izanik udal zerga zama txikitzea, alor ekonomiko hauetan euskara bultzatzea, digitalizazioan sakontzea eta irisgarritasuna sustatzea. Gure hiri ekonomia garai berrietara egokitzen lagundu nahi dugu, beraien biziraupena bermatu modernizazioaren eta merkatu aukera berriak eskainiz, eta herriaren bizitasuna eta enplegua mantendu. Kate bat da guztia eta kontsumitzaileak, merkatari, ostalari zein profesionalen eta administrazioaren inplikazioa behar dugu".

### Laguntza guztien zenbatekoak ondorengoak izango dira 2022an:

- **Irekitze berriagatik:** 500 euro.
- **Lokalak egokitzeagatik**, justifikatutako gastuen % 20, betiere 1.250 euroko guztirako mugarekin. Gastu hauen justifikaziorako dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira eta ordainduta daudela egiaztatu.
- Gastua **euskaraz errotulatzera** bideratuta badago edota jada dagoen errotulazioaren euskaratzera, lan honi zehazki dagokion gastuaren laguntza % 80koa izango da, betiere 500 euroko guztirako mugareki.
- **'Ticketbai' fakturazio sisteman euskarazko softwarea jartzeagatik:** 250,00 euro.
- **Goierriko Azoka** bidez merkaturatze digitalera bideratutako gastuaren %80, 160 euroko guztirako mugarekin.

Diru-laguntza lerro hauen eskaera epealdia 2022ko abenduaren 30 artekoa izango da eta 2022ko urtarrilaren 1etik izandako gastuen laguntza eskatu ahal izango da.



## Las cuantías de las ayudas en 2022 será la siguiente:

- Importe por nueva apertura: 500 euros.
- Importe por acondicionamiento de locales, 20% de los gastos justificados, con un límite total de 1.250 euros. Para la justificación de estos gastos se deberán presentar las facturas correspondientes y acreditar que están abonadas.
- Si el gasto está destinado a la rotulación en euskera o a la traducción al euskera de la rotulación ya existente, la ayuda del gasto correspondiente específicamente a este trabajo será del 80%, con un límite total de 500 euros.
- La instalación de software en euskera en el sistema de facturación TicketBAI: 250,00 euros.
- El 80% del gasto destinado a la comercialización digital a través de Goierriko Azoka, con un límite total de 160 euros.

El plazo de solicitud de estas líneas estará abierto hasta el 30 de diciembre de 2022, pudiéndose solicitar la ayuda de los gastos realizados desde el 1 de enero de 2022.

# El Ayuntamiento de Lazkao pone en marcha dos nuevas líneas de subvenciones para fomentar el comercio, los servicios y la hostelería local

El Ayuntamiento de Lazkao ha dado a conocer el catálogo de subvenciones 2022 para la promoción del comercio, los servicios y la hostelería. Incluye dos novedades respecto a años anteriores: con el objetivo de fomentar el euskera, la ayuda por implantar en euskera la aplicación del nuevo sistema de facturación 'Ticketbai', y en aras de impulsar la digitalización, una subvención por participar en la plataforma 'Goierriko Azoka'.

Los representantes municipales han destacado que el objetivo de estas subvenciones es fomentar y apoyar el comercio, los servicios y la hostelería de Lazkao: "Trabajamos en diferentes ámbitos, sobre la base de reducir la carga fiscal municipal, impulsar el euskera en estos ámbitos económicos, profundizar en la digitalización y fomentar la accesibilidad. Queremos contribuir a la adaptación de nuestra economía urbana a los nuevos tiempos, garantizar su supervivencia ofreciendo nuevas oportunidades de mercado y modernización, y mantener, asi, la vitalidad del municipio y el empleo. Todo es una cadena y necesitamos la implicación de los consumidores, comerciantes, hosteleros y profesionales y la administración".

> *Además de las subvenciones habituales, se apoyará la implantación de la aplicación del nuevo sistema de facturación Ticketbai en euskera, así como la participación en la plataforma digital Goierriko Azoka.*

# Agauntza ibaiaren gaineko pasabide berri batek San Benito Ikastola eta Elosegi kalea lotuko ditu

Erabiliko den materiala ebaketa-altzairuzkoa izango da, galtzadan harrizko zoladura jarriko da, eta pasabidea argitzeko bi LED hilera jartzea aurreikusi da.

Lazkaoko Udalak pasabide berri bat eraikiko du Agauntza ibaiaren gainean Lazkaoko ikastolaren ingurutik San Migel elizaraino gurutzatzeko. Lanak ekainean hasiko dira eta 5 hilabete inguruko iraupena izango dute.

Udalak, gainera, hurbileko etorkizunean pasealeku bat egin nahi du ibaiaren ertzetik orain Parrokian amaitzen den oinezko bideari jarraipena emanaz, ibaia eta gune historikoa balioetsiz.

Helburua da "bi ertzak lotzea eta, horrela, ibaia oztopo arkitektoniko izatetik elementu osagarri izango duen herria izatea", Udaletik adierazten dutenez.

Zubiak 27.02 m-ko luzera izango du eta bao bakarrekoa izango da, eta zubiaren zabalera 3.2 m-koa izango da. Pasabidea inguruan erabat integratzeko, elizako hareharriarekin eta eskuinaldeko plazan dagoen eskulturarekin, altzairu ebakiz egindako materiala erabiliko da. 6 cm-ko lodierako galtzada-harrizko zoladura jarriko da, eta pasabidea argitzeko bi LED hilera jartzea aurreikusi da. Obraren aurrekontua 296.000 euro + BEZa izango da, eta Diez y Compañía SA enpresak gauzatuko du.

"

*Obrak ekainean hasiko dira eta 5 hilabete inguruko iraupena izango dute. Obraren aurrekontua 296.000 euro + BEZa da.*







# Una nueva pasarela sobre el rio Agauntza unirá la Ikastola San Benito y la calle Elosegi

El material empleado será de acero corten, se colocará el pavimento tipo adoquín y de cara a alumbrar la pasarela se ha previsto colocar dos tiras LED.

El Ayuntamiento de Lazkao construirá una nueva pasarela que cruce el río Agauntza desde la zona de la ikastola de Lazkao hasta la iglesia de San Miguel Las obras arrancarán en junio y tendrán una duración aproximada de 5 meses.

En un futuro cercano se proyecta un paseo junto al margen del rio para dar continuidad al paseo que actualmente termina en la Parroquia, y poner en valor Agauntza y el casco historico.

El objetivo es "habilitar vías de comunicación entre los dos márgenes y así, conseguir que el rio deje de ser una barrera arquitectónica, para pasar a convertirse en un elemento integrador" señalan desde el Consistorio.

El puente tendrá una longitud de 27.02 m y será de un único vano. La anchura del puente será de 3.2 m. Para que la pasarela se integre totalmente en el entorno, con la piedra arenisca de la iglesia, y con la escultura situada en la plaza de la margen derecha, el material empleado será de acero corten. Se colocará el pavimento tipo adoquín de 6 cm de espesor y de cara a alumbrar la pasarela se ha previsto colocar dos tiras LED.

El presupuesto de la obra asciende a 296.000 euros + IVA y será ejecutada por la empresa Diez y Compañía S.A.

> *Las obras arrancarán en junio y tendrán una duración aproximada de 5 meses. El presupuesto de la obra asciende a 296.000 euros + IVA.*

# LABURRAK





## HIRIBARREN KALEAN 23 PLAZAKO APARKALEKU BERRIA EGOKITU DA

Iturgaitzaga guneko hirigintza garapenaren baitan, Hiribarren kalean, Lazkaomendiko biribilgunearen aldamenean, berrurbanizazio lanak burutu dira. Bertan 23 plazako aparkaleku bat egokitu da.
Eremuko instalazioak eguneratu dira: herri argiteria berritu da efizienteagoak eta ingurumenarekin jasangarriagoak diren LED argiak ezarriz, eta guneko euri uren sarea ere eguneratu da.
Lanen aurrekontua 101.042,24 eurotakoa izan da, BEZ barne.

## NUEVO APARCAMIENTO DE 23 PLAZAS EN HIRIBARREN KALEA

Dentro del desarrollo urbanístico de Iturgaitzaga, se han llevado a cabo obras de reurbanización de la calle Hiribarren, junto a la rotonda de Lazkaomendi. Allí se ha acondicionado un aparcamiento de 23 plazas.
También se han renovado las instalaciones del entorno: se ha actualizado el alumbrado público instalando luminarias LED más sostenibles con el medio ambiente, y se ha renovado la red de aguas pluviales.
El presupuesto de las obras ha sido de 101.042,24 euros, IVA incluido.

## LAZKAOKO UDALAK HERRI-ERAGILEREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATU DU BEREN LANA BABESTU ETA SUSTATZE ALDERA

Lazkaoko Udalak, bigarrenez, herri-eragileekin hitzarmenak sinatu ditu: Oin Arin dantza taldea, Jundajo Txaranga, Kantaka abesbatza, Lazkaoko Musika Banda, Zawopi, Suthai Batukada taldea, Lazkaoko Erraldoi eta Buruhandiak eta Lemiskata elkartea.

Guztira 32.000 euro bideratuko dira elkarte hauetara. Hitzarmena sinatzerakoan diru-laguntzaren %60a jasotzen dute eta urte bukaeran, memoria aurkeztutakoan, gainerako %40a.

## EL AYUNTAMIENTO DE LAZKAO HA FIRMADO UN CONVENIO DE COLABORACIÓN CON DISTINTOS AGENTES CULTURALES PARA APOYAR E IMPULSAR SU LABOR

El Ayuntamiento de Lazkao, por segundo año consecutivo, ha firmado convenios de colaboración con agentes culturales del municipio: Oin Arin dantza taldea, Zawopi, Jundajo Txaranga, Kantaka abesbatza, Lazkaoko Musika Banda, Suthai Batukada taldea, Lazkaoko Erraldoi eta Buruhandiak y Lemiskata elkartea.
En total se destinarán 32.000 euros a estas asociaciones. A la firma del convenio reciben el 60% de la subvención y al final del año, una vez presentada la memoria, el 40% restante.








## LAZKAOK UKRAINARI ADIERAZITAKO ELKARTASUNA ESKERTU DU UDALAK

Martxoaren hasieran lazkaotarrek lehen mailako produktuez eta jakiez osatutako 24 palet oso eman zituzten, 8,5 tonatik gorakoak. Era berean, 2.000 kg arropa baino gehiago batu ziren, antolatzaileek ezarritako aurreikuspenak gaindituz.

Udalak, Ukrainia-Euskadi elkartearekin koordinatuta, herritarrek emandako arropa, janari eta parafarmaziako produktu guztiak helarazi ditu Ukrainiara eta errefuxiatuak hartzen ari diren mugako herrialdeetara.

## EL AYUNTAMIENTO AGRADECE LA SOLIDARIDAD DE LAZKAO CON UCRANIA

A principios de marzo las y los lazkaotarras y donaron 24 palés completos de comida y productos de primera necesidad, superando la cifra de 8,5 toneladas. Así mismo, se recogieron más de 2.000 kg de ropa.
El Consistorio, en coordinación con la asociación socio-cultural y de cooperación al desarrollo Ucrania-Euskadi, hizo llegar a Ucrania y a los países fronterizos que están acogiendo refugiados toda la ropa, comida y productos de parafarmacia depositados por la ciudadanía.

## 'GAU ETA EGUN, EUSKARA LAGUN', LAZKAOKO LELO BERRIA

Haizea Mendizabal eta Aiora Sarasola lazkaotarrek Euskara Lelo Lehiaketara aurkeztutako lana izan da garaile. Guztira 245 lelo aurkeztu dira lehiaketara. Lehiaketa Lazkaoko Udalak onartu berri duen Euskara Planean jasotako ekimenetako bat da, herrian euskararen erabilera sustatzeko helburuz.

## 'GAU ETA EGUN, EUSKARA LAGUN', NUEVO LEMA DE LAZKAO

El trabajo presentado por las lazkaotarras Haizea Mendizabal y Aiora Sarasola al Concurso de Lemas en euskera ha sido el elegido. En total se han presentado a concurso 245 lemas. El concurso es una de las iniciativas recogidas en el Plan de Euskera aprobado recientemente por el Ayuntamiento de Lazkao con el objetivo de fomentar el uso del euskera en la localidad.



## LAZKAO, BEASAIN, ORDIZIA ETA OLABERRIAKO UDALEK ETA GOIERRI FUNDAZIOAK CAF ATZEKALDETIK GOIERRI ESKOLARA DOAN OINEZKOEN BIDEA KONPONDU DUTE

Bideak 840 metro inguruko luzera dauka: oinezkoentzako bide hori kontserbazio-egoera txarrean zegoen, eta konpontzeko eta hobetzeko obrak egin dira bertan, hala nola hormigoizko zoru berria, argiteria jartzea eta oinezkoen erabilera bermatuko duten hesi eta seinaleak jartzea, Granjatik hasi eta CAFeko pabilioien atzean dagoen bidearekin bat egin arte.

Inbertsioa 66.033,63 eurokoa izan da. Beasain, Ordizia, Olaberria eta Lazkaoko udalek finantzatu dute.

## LOS AYUNTAMIENTOS DE LAZKAO, BEASAIN, ORDIZIA Y OLABERRIA Y GOIERRI FUNDAZIOA REPARAN EL CAMINO PEATONAL DESDE LA ZONA TRASERA DE CAF HASTA GOIERRI ESKOLA

El camino tiene una longitud aproximada de 840 metros: se encontraba en mal estado de conservación y en él se han acometido obras de reparación y mejora, como el nuevo firme de hormigón, recogida de aguas pluviales e infraestructuras para la instalación de alumbrado, desde la Granja hasta la confluencia con el camino situado detrás de los pabellones de CAF.

La inversión asciende a 66.033,63 euros y ha sido sufragado por los ayuntamientos de Beasain, Ordizia, Lazkao y Olaberria.
















# GORA SAN PRUDENTZIOAK ETA LAZKAOMENDIKO JAIAK!










LIZARTE










REAL SOCIEDAD


STOP





# Harizti Haundi futbol zelaiko belarra ordezkatuko da

***Egungo futbol-zelaiko belar zoladura ordeztea eta dauden instalazioak berrikustea eta eguneratzea da helburua.***

+ + +

Lazkaoko Udalak Harizti Haundi futbol zelaiko belar artifiziala berrituko du. Azalera osoa 130 m luze eta 63 m zabal da, eta jokalekua 100 m luze eta 60 m zabal.

Erabileraren intentsitate handiaren eta denboraren joanaren ondorioz, belar sintetikoak endekapen-prozesu bat jasan du, eta gaur egun zuntzen galera eta higadura erakusten du, baita tapizean urratuak eta banaketak dituzten eremuak ere.

Obra honetan, egungo futbol-zelaiko belarra ordeztuko da, eta ureztatzeko instalakuntza lurperatu eta berrituko da. Horrez gain, porteria berriak jarriko dira.

Obra ekaina amaieran hasiko da eta 5 aste inguruko iraupena izango du. Aurrekontua 224.295 eurokoa da, BEZik gabe.

↘

**OBRA EKAINA AMAIERAN HASIKO DA ETA 5 ASTE INGURUKO IRAUPENA IZANGO DU. AURREKONTUA 224.295 EUROKOA DA, BEZIK GABE**



**LA OBRA COMENZARÁ A FINALES DE JUNIO Y TENDRÁ UNA DURACIÓN APROXIMADA DE 5 SEMANAS. EL PRESUPUESTO ASCIENDE A 224.295 EUROS, SIN IVA**



# Se renovará el césped del campo de fútbol Harizti Haundi

*Se sustituirá el césped del campo de fútbol, así como la revisión y actualización de las instalaciones existentes.*

El Ayuntamiento de Lazkao sustituirá el césped artificial del campo de fútbol Harizti Haundi. La superficie total asciende a 130 m de largo y 63 m de ancho, y el terreno de juego 100 m de largo y 60 de m de ancho.

Debido a la alta intensidad de uso y al paso del tiempo el césped ha sufrido un evidente proceso de deterioro mostrando en la actualidad perdida y erosión de las fibras, zonas con rasgados y separaciones en el tapiz.

La obra consistirá en la sustitución del césped sintético. Asimismo se actualizará el sistema de riego mediante su soterramiento.

# 370 haurrek hartuko dute parte Lazkaoko udako kirol ikastaroetan




Udan kirol ikastaro ugari eskainiko dira haur eta gazteentzat. Guztira 370 lazkaotarrek hartuko dute parte. Ikastaro guztiak ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean izango dira.

Hogei jarduera baino gehiago izango dira: kirol anitzak, kirol dantza, patinajea, tenisa, arku tiroa, pilota, piraguismoa, mendiko bizikleta, gimnasia erritmikoa, triatloia eta abar.

Aurten, futbol zelaiko belarra aldatzeko obrak direla eta, ez da futbol ikastaroa eskaintzerik izan.

**Udako aisialdi zerbitzua**
Ekainaren 27tik uztailaren 22ra, bi txandatan, 9:00etatik 13:00etara edo 10:00etatik 13:00etara, 175 haurrek hainbat esperientzia, tailer eta jolas-jarduerez gozatuko dute.

**Kultur ikastaroak ere izango dira**
Lazkaoko Udaleko Kultura sailak 'Artea eta gizakia' eskulan tailerra antolatu du udako denboraldirako.

Bi txandatan egingo da: ekainaren 27tik uztailaren 8ra eta uztailaren 11tik 22ra. Lehen txanda 6-10 urte bitartekoentzat izango da, egunero arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara. Uztailaren 11tik 22ra 11 urtetik gorakoentzat, 16:00etatik 18:00etara.

| | |
|---|---|
| Kirolanitzeko jarduera | **115 haur** |
| Irristaketa | **13 haur** |
| Gimnasia erritmika | **14 haur** |
| Pelota | **19 haur** |
| Igeriketa | **47 haur** |
| Tenisa | **43 haur** |
| Kirol dantza | **19 haur** |
| Piraguismoa | **44 haur** |
| Triatloia | **9 haur** |
| Mendiko bizikleta | **4 haur** |
| Ziklo gazte | **26 gazte** |
| Bodytraining | **15 gazte** |

Izen-emateak Udaletxean egin behar dira: harreran bertan, 943 08 80 80 telefonoan edo kultura@lazkao.eus helbidean.

Txikienek oporraldiaz gozatu eta gurasoen lan-ordutegia bateragarri egiten laguntzeko helburuarekin antolatzen dira tailer eta jarduera hauek.





# 370

## niñas y niños participarán en los cursos deportivos en verano de Lazkao

El Ayuntamiento ha preparado para la temporada estival una amplia oferta de cursos deportivos para niñas, niños y jóvenes de entre 3 y 18 años.

En verano Lazkao ofertará numerosos cursos deportivos para las niñas, niños y jóvenes. En total participarán 370 lazkaotarras. Todos los cursos tendrán lugar del 27 de junio al 22 de julio.

Habrá más de una veintena de actividades: multideportivas, danza deportiva, patinaje, tenis, tiro con arco, pelota, piragüismo, bicicleta de montaña, gimnasia rítmica, triatlón y un largo etc.

Este año, debido a las obras de sustitución del cesped del campo de futbol, no se ha podido ofertar el curso de futbol.



**Servicio de ocio de verano**
Del 27 de junio al 22 de julio, en dos tandas, de 9:00 a 13:00 o de 10:00 a 13:00 horas, 175 niños y niñas disfrutarán de diversas experiencias, talleres y actividades lúdicas.

**También habrá cursos culturales**
El departamento de Cultura del Ayuntamiento de Lazkao ha organizado el taller de manualidades "Artea eta gizakia" para la temporada de verano.

Se desarrollará en dos turnos: del 27 de junio al 8 de julio y del 11 al 22 de julio. El primer turno será para los de 6 a 10 años, todos los días por la tarde, de 16:00 a 18:00 horas. Del 11 de julio al 22 de julio para mayores de 11 años, de 16:00 a 18:00 horas.

Las inscripciones deben realizarse en el Ayuntamiento: de forma presencial, en el teléfono 943 08 80 80 o en la dirección kultura@lazkao.eus.

Estos talleres y actividades se organizan para el disfrute de las y los más pequeños en sus vacaciones y facilitar la conciliación con el horario laboral de las madres y los padres.



# LAZKAO

AZKEN BERRIAK SAKELEKOAN

## JASO LAZKAOKO INFORMAZIOA **WHATSAPP BIDEZ**

## RECIBE LA INFORMACIÓN DE LAZKAO **POR WHATSAPP**




LAZKAOKO UDALA